



Udalerri euskaldunetan
kultur ekitaldiak programatzeko
hizkuntza irizpideak



EUSKARAZ PROGRAMATZEKO GIDA



Kultura
bizi,
euskara
bizi.



UEMA

www.uema.eus

koordinazioa@uema.eus

t.me/UEMAeus



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-Partekatu Berdin 4.0
nazioarteko lizentziapean zabaltzen
da.

Lehen argitaraldia:
Argitaratzailea:

2026ko ekaina
Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
UEMA



Arnasa gara

Udalerri euskaldunek
erreferente izan behar dute
kultura euskaraz
programatzerakoan ere



Kultura politikak ez dira neutroak

**Arnasa
euskararentzat**

**Euskararen
indarberritzearen
bultzatzaile**

Udalerri euskaldunen zeregina bikoitza da: bertako erabilera soziala indartzea eta euskarazko kulturaren arnasmune izateko betebeharra.



Euskararen indarberritze prozesuaren motor izateko ardura ere badute udalerri euskaldunek, eta kultura giltzarria da horretarako.

Udalek politika ausartak eta kontzienteak garatu behar dituzte kultura arloan. **Ez dago jarrera neutrorik hizkuntzari dagokionez.**



Kultura: hizkuntza-ohituretan eta gaitasunean eragiteko giltza

Erdaren
erauntsia

Globalizazioa



TRANSMISIOA

Hizkuntzaren
biziraupena
bermatzen duen
funtsezko
euskarria.

AHOZKOTASUNA

Belaunaldi berrien
hizkuntza-ohituretan,
jariotasunean eta
gaitasunean
eragiteko giltzarria da
kultura.

IDENTITATEA

Iruditeria kolektiboa
eta komunitatearen identitate
partekatua eraikitzen ditu kulturak.

**Kultura ez da aisialdi hutsa.
Zer garen erakusteko modua da.**



Erantzukizunez programatu kulturaren ziklo osoa zaindu

SORMENAREN ZIKLOA ZAINDU

Sorkuntza
lagundu, sormena
sustatu

SORTZAILEEN BALDINTZA DUINAK

Bidezko
kontratazioa, eta
euskal sortzaileen
zaintza



TRANSMISIOA

Euskaraz sortzen
denaren berri
eman



SORTZAILEA



KULTURA



PUBLIKOA



ETORKIZUNA



Hizkuntza irizpideak aplikatzeko eremuak

Irizpide hauek herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskarazko eskaintza ziurtatzeko prestatu dira, hiru eremu nagusi kontuan hartuta.



UDALAREN PROGRAMAZIOA

Udalak zuzenean kontratatu edo programatzen dituen ekitaldiek hizkuntza irizpideak bete behar dituzte, udalaren edozein sail izanda ere antolatzailea.



DIRULAGUNTZAK

Udalaren dirulaguntza jasotzen duten kultur eta bestelako ekitaldiek ere udalaren hizkuntza irizpideak bete behar dituzte.



BAIMENAK

Espazio publikoan baimentzen diren ekitaldiek ere hizkuntza irizpideak bete behar dituzte. Baita ekitaldiak iragartzeko komunikazio euskarriek ere.



UDALAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK



UDALAk zuzenean programatutakoa



PROGRAMAZIO OROKORRA

Kultur jarduerak, ekitaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak... euskaraz gutxienez proportzio honetan:

Euskaraz programatu gutxienez = euskalduntze indizea* + %10

*Euskalduntze indizea = Euskaldunak % + (ia euskaldunak %/2)



HAUR ETA GAZTEENTZAKO ESKAINTZA

%100 EUSKARAZ

Euskaraz egin badaiteke, euskaraz egin

Udalaren programazioan gaztelaniaz ez programatu jarduera bera euskaraz programatzeko aukera dagoenean



UDALArri eredu izatea dagokio



UDALAREKIN HARREMANA

Udalaren lan hizkuntza euskara da.

Ahozkoa

Bilerak, aurrez aurrekoak eta telefono bidezko harreman guztiak, euskaraz.

Idatzizkoak

Fakturak, kontratuak, jakinarazpenak, txostenak eta posta mezuak euskaraz izango dira.



AZPIKONTRATAZIOA

Hezitzaileak, harreragileak edo antzekoak kontratatzean: euskarazko jarduna normaltasun osoz bermatzeko giza-baliabideak kontratatzea hobetsiko da kontratazio baldintzetan.

Udalerri euskalduna gara,
eta erakunde publikoa den heinean
ardura erakutsi eta eredugarri izan
behar du udalak.




HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Irizpide orokorrak




IDATZIZKOA

Programazio orriak,
agiriak, txartelak,
oharrak, sare sozialak...
euskaraz egongo dira



PUBLIZITATEA

Publizitate guztia
euskaraz izango da,
bai ahoz, zein idatziz



AHOZKOA

Bozgorailuetatik
igortzen diren mezuak,
musika... euskaraz
izango dira



KALITATEA

Euskararen kalitatea
bermatu behar da ahoz
zein idatziz



Dirulaguntzek eta espazio publikoak euskararen alde egin behar dute



DIRULAGUNTZAK



Udalaren dirulaguntza
jasotzen duten
ekitaldiek udalaren
hizkuntza irizpideak
bete
behar dituzte



ESPAZIO PUBLIKOA



Espazio publikoan
baimentzen diren
ekitaldiek ere
hizkuntza irizpideak
bete
behar dituzte

HIZKUNTZA IRIZPIDE BERBERAK



Hizkuntza irizpideak aplikatzeko eremuak

Irizpide hauek herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskarazko eskaintza ziurtatzeko prestatu dira, hiru eremu nagusi kontuan hartuta:



Zuzenean programatua

Diruz lagundutakoa

Espazio publikoetarako baimenak

Komunikazio irizpide orokorrak

Denetan aplikatzen da

Denetan aplikatzen da

Denetan aplikatzen da

Beste hizkuntza baten erabilera

Salbuespena. Ezin da erdaraz egin euskarazko aukera baldin badago.

Salbuespena. Udalaren adostasuna ezinbestekoa da.

Justifikatua izan beharko du

Ekitaldia erdaraz bada, euskaraz iragarri behar da?

Bai

Bai

Bai

Udalarekiko barne harremanak

Euskaraz

—

—

Irizpideen jakinarazpena

Kontratuan

Idatziz emango zaizkie


Idatziz emango zaizkie

UDALAREN HIZKUNTZA POLITIKA



Kultur programaziorako hizkuntza irizpideak

Udalerri euskaldunetan kultura
erantzukizunez programatzeko gida



labur.eus/UEMA2026KPI



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA